

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>beta</b>	Amaiak ez zuen erantzuteko <b>betarik</b> izan, aitona agertu baitzen orduan, zerbait esanez.
<b>gaztigatu</b>	Galdeketa gero etorriko zela <b>gaztigatu</b> zidaten; pentsatuko zuten nik izango nuela...
<b>gurtu</b>	Gure arbasoek utzitako harrizko aztarnen hizkuntza zaharra ikastea eta merezi duten moduan <b>gurtzea</b> , ulertzea, gizarteari transmititzea...
<b>auzi</b>	Beranduago saiatuko zen berarekin kontaktuan jartzen, <b>auzia</b> konpondutakoan, baldin eta auziak konponbiderik bazuen.
<b>promes</b>	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez kikiltzeko <b>promesa</b> , alegia.
<b>ahantzura</b>	Zenbait gauza, gainera, nahiago zituen <b>ahantzurara</b> bidali, betiko ahantzi.
<b>hegaka</b>	Haien hitzak Mario eta Amaiaren inguruan gelditu ziren <b>hegaka</b> .
<b>zabu-zabuka</b>	...ipurdiari eraginez, <b>zabu-zabuka</b> galdu zen azafata pasilloan barrena.
<b>gringo</b>	...urte dexente daramatzat turista <b>gringoekin</b> negozioak egiten, eta ez alferrik!
<b>ernegatu</b>	Ezin zuen ezkutatu, <b>ernegatuta</b> zegoen: ziegetan zeudela, Mariok ez zion kasurik egin...
<b>sumin</b>	<b>Sumin</b> momentu baten ostean, lasaitu egin zitzaion aurpegia...
<b>umil</b>	...hilketa-ospakizun labur, <b>umil</b> baina bihotz-bihotzetiko baten ondoren haren gorpua kareletik bota behar izatea...
<b>hauskor</b>	...gauza <b>hauskor</b> bat kontu handiz gordetzeko moduan prestatuta...
<b>zantzu</b>	Lehenago baino nahastuago zegoen guztia, poliziaren bisitaren <b>zantzuak</b> nonahi.
<b>kolokan ikusi</b>	...eta agintariren batek <b>kolokan ikusten</b> bazuen bere boterea, masakreari ekiten zion...
<b>aztoramendu</b>	Auskalo zer esatekoa gai zen Mario <b>aztoramendu</b> egoera horretan.
<b>hamaika</b>	...baina, aldi berean, gure aurrean zabaltzen zen ozeano bortitzak <b>hamaika</b> abentura kilikagarri iragartzen zituen, gure bihotzak hanpatuz.
<b>erruz</b>	... <b>erruz</b> ari zen altzoan zuen erretilua betetzen.
<b>dezente</b>	...urte <b>dexente</b> daramatzat turista gringoekin negozioak egiten, eta ez alferrik!
<b>danbateko</b>	Ate bat itxi zen gero, <b>danbateko</b> batez, inguruko bungalow batean.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>damutu</b>	Momentu hartan <b>damutu</b> egin zitzaion bidaian atera aurretik amak utzitako liburu bati egindako muzina.
<b>zimiko</b>	New York txiki egiten zitzaigun bitartean, ezin izan dugu herrimin eta malenkonia <b>zimiko</b> bat saihestu...
<b>erpuru</b>	...baina orain Emilianok nahi zuena Amaiaren <b>erpuru</b> a miazkatzea zen.
<b>erretilu</b>	Goiztiarrenak zirenez, erruz bete zituzten beren <b>erretiluak</b> ...
<b>indusketa</b>	<b>Indusketan</b> denbora gehien zeramatenek azken nobedadeak kontatzen zizkieten heldu berriei.
<b>arakatu</b>	Bungalowa gehiegi <b>arakatu</b> gabe bota zen Amaia...
<b>gero</b>	Aldarte onekoa da Catherwood <b>gero</b> !
<b>murgildu</b>	Hori esanik isiltasuna ilunean <b>murgildu</b> zen, eta Amaia ez zen beste ezer eranstera ausartu.
<b>kupel</b>	...trementina eta bolbora, seiehun <b>kupel</b> bakoitzeko...
<b>ziplo</b>	...eta joan zitzaion <b>ziplo</b> hitz egiteko gogoa.
<b>auskalo</b>	<b>Auskalo</b> zenbat eraikin, zenbat hiri dauden oraindik deskubritzeke.
<b>apal</b>	Trumoa ere ailegatu zen urrundik, <b>apal</b> .
<b>alboratu</b>	Mr. Catherwoodek ez du inoiz <b>alboratzen</b> bere koaderno marroia...
<b>malkotan blai utzi</b>	...Amaiak ez zuen inoiz jakin aurreneko deiaren arrazoia, <b>ama malkotan blai utzi</b> zuen horrena.
<b>belztasun</b>	Inguruan: <b>belztasun</b> izugarria.
<b>hitz eta pitz</b>	<b>Hitz eta pitz</b> jarraitu zuten, jan-edan oparoan, eta bigarren garagardoarekin batera ama ere batu zitzaien...
<b>beste behin</b>	Beraz, ez du inork bertan begiratuko <b>beste behin</b> .
<b>besazpi</b>	Eskuineko eskuaz sokari eusten zion urpekariak, baina ezkerreko <b>besazpian</b> pakete bat zekarren.
<b>mundua korritu</b>	Amonarekin gelditu ohi zen bera ama <b>mundua korritzera</b> abiatzen zen bakoitzean.
<b>zirrikitu</b>	Baina ez zen lo lasaia izan, loaren iluntasunaren <b>zirrikituetatik</b> aurpegi basatiak sartzen zitzaizkiolako...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

**jirabiraka**

Idea berri bat zuen **jirabiraka** buruan.

**txilio**

...bere **txilioaren** oihartzuna aire girotuaren bide osotik zabaldu zen.

**zekenkeria**

...denborak baino ez ditu galbideratu, eta ez giza **zekenkeriak**, Mesoamerikako hainbat altxorrekin gertatu den moduan.

**orbain**

**Orbain** txiki bat zuen ezpainen ezker aldean, eta horrek are zabalagoa egiten zion irribarrea.

**inpazientzia**

...Tennessee igaro behar izan genuen azken gaua, ronak eta **inpazientziak** geure aldartea lanbrotuta.

**temati**

Baina McKenzie **tematuta** zegoen, eta bere aginduak jarraitzen zituen talde prestu bat zen.

**deliberatu**

Hoberena Palenquera itzultzea izango dela **deliberatu** dugu orduan.

**etsipen**

Amak **etsipen** keinu bat egin zuen, eta poliziak bidea libre zeukala ulertu zuen.

**hanka-sartze**

Oso posible zen Carlosen heriotza **hanka-sartze** bat izatea.

**kiskali**

Landare eta hosto ugari ikusi ditugu erabat **kiskalita**.

**altzari**

Ikusi zuen lehenengo ezkutalekuan: telebista azpiko **altzarian**.

**hegi**

Ama geroz eta urduriago zegoen, negarraren **hegian** berriz ere.

**igurikatu**

Loroak eta jaguarrak **igurikatzen** zituen inguruan...

**elbarri**

...bestetik gizon edadetu eta **elbarri** bat eta bere laguntzailea behar zuena.

**ezta hurrik eman ere**

—**Ezta hurrik eman ere** —esan zuen besteak, kidearen lasaitasun eta irmotasuna imitatuz.

**iltzatu**

...esan zuen Amaiak, pantailara **iltzatuta**.

**eritasun**

Buruko minak, digestio aparatuen gaixotasunak, arimaren **eritasunak**...

**eragotzi**

...baina, antza denez, baimen guztiak prest ditu eta ezin diogu **eragotzi**.

**galbideratu**

Arbasoek abandonatu zituztenetik, denborak baino ez ditu **galbideratu**...

**baltsamatu**

—Gorria da gorpua **baltsamatzeko** erabili zuten mineralagatik: zinabrioagatik.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen: Nota: 

<b>ozpin</b>	...galdetu zuen Mariok, keinu <b>ozpin</b> bat aurpegian.
<b>mesanotxea</b>	...sasi-kazetarien telefonoa zen, Carlos Aguirreren mesanotxean ikusitakoa edo beste bat.
<b>gaztaro</b>	Beren <b>gaztaroen</b> inguruko eztabaida batean elkarri mokoka hasi ziren...
<b>erantsi</b>	Hori esanik isiltasuna ilunean murgildu zen, eta Amaia ez zen beste ezer <b>eranstera</b> ausartu.
<b>suertatu</b>	Gainera, hauen arrastoari jarraitzea askoz zailagoa <b>suertatzen</b> da.
<b>gako</b>	—Zeren zain zaudete? McKenzie da <b>gakoa!</b> Berak badaki non dagoen maskara!
<b>petral</b>	Orain, ordea, isiltasun <b>petrala</b> baino ez.
<b>nahierara</b>	Hamazazpigarren egunean, ekaitz batek ez baizik haizeak bere <b>nahiera</b> kulunkatu gintuen...
<b>goiztiar</b>	<b>Goiztiarrenak</b> zirenez, erruz bete zituzten beren erretiluak...
<b>hilotz</b>	Ez luke beste <b>hilotz</b> bat ikusi nahi...
<b>hartu-eman</b>	Carlos negozio ilunetan zegoen. Legez kanpoko <b>hartu-emanak</b> .
<b>alegia</b>	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez kikiltzeko promesa, <b>alegia</b> .
<b>zirrargarri</b>	...Amaiari idea ona eta <b>zirrargarria</b> iruditu zitzaion.
<b>kasik</b>	...trumoi eta tximistargiz jositako ekaitz paregabe batek ozeanoaren aho sakonerantz eraman gintuen <b>kasik</b> .
<b>apenas</b>	Zaila zen korrika egitea oihanean barrena, batez ere kontuan edukita gaua zela, ez zela <b>apenas</b> ikusten...
<b>paregabe</b>	...trumoi eta tximistargiz jositako ekaitz <b>paregabe</b> batek ozeanoaren aho sakonerantz eraman gintuen kasik.
<b>andana</b>	...bi silueta ilun eguzki <b>andana</b> baten erdian.
<b>ile-motots</b>	Amak telefonoa eskegi aurretik atera zen, hautsez beteta, <b>ile-mototsa</b> deseginda, eta ume onaren irribarrea ahoan.
<b>atximurka egin</b>	Amaiaren masailean <b>atximurka egin</b> zuen...
<b>erauzi</b>	Gorputzetik askatu behar zitzaiola iruditzen zitzaion, edo bestela berak <b>erauziko</b> zuen bere burua...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>idazkun</b>	...baina barruko aldetik <b>idazkun</b> bat ere izan beharko luke...
<b>azpijoko</b>	Zerbaitek esaten zion <b>azpijoko</b> baten barruan sartuta zegoela...
<b>ipurdiari eragin</b>	... <b>ipurdiari eraginez</b> , zabu-zabuka galdu zen azafata pasilloan barrena.
<b>galdeketa</b>	<b>Galdeketa</b> gero etorriko zela gaztigatu zidaten; pentsatuko zuten nik izango nuela...
<b>karel</b>	...hilketa-ospakizun labur, umil baina bihotz-bihotzetiko baten ondoren haren gorpua <b>kareletik</b> bota behar izatea...
<b>izerdi patsetan</b>	Aulkiari eragiten zion gazte betaurrekoduna <b>izerdi patsetan</b> zebilen...
<b>dagoeneko</b>	Ama <b>dagoeneko</b> ohean zegoen, eltxoen aurkako lozioaz lohituta eta paper batzuei begira...
<b>irmotasun</b>	...oraingoa bere burua ere harritu zuen ziurtasun eta <b>irmotasunez</b> ...
<b>tiradera</b>	Sukaldean sartu eta Mariok destornilladore bat hasu zuen <b>tiradera</b> batetik.
<b>ziega</b>	Soto batean zegoen ziber-kafea, polizia-etxeko <b>ziegak</b> bezalaxe...
<b>adore</b>	...eta <b>adorea</b> bilatzen saiatu zen.
<b>laukidun</b>	Gizon <b>laukidunak</b> bien maletak hartu zituen...
<b>kikildu</b>	..bere buruari egindako ausardi agindua gogoratu zuen atzera berriz, polizia horren aurrean ez <b>kikiltzeko</b> promesa, alegia.
<b>abesbatza</b>	Gaua itxia izanagatik ere, <b>abesbatza</b> tropikala (tximuak edo loroak, edo denak batera) ez zen isiltzen.
<b>larrutu</b>	Arkeologia ikasleak baziren nonbait, bai, eta irakasleren bat ari ziren <b>larrutzen</b> , indusketara hain goiz bidaltzeagatik.
<b>larrutu</b>	...Amaia animatzen eta poliziak larrutzen, amak mahairaino erakarri zituen arte.
<b>lanbrotu</b>	...Tenesseen igaro behar izan genuen azken gaua, ronak eta inpazientziak geure aldartea <b>lanbrotuta</b> .
<b>soilgune</b>	<b>Soilgune</b> batera ailegatu gara eta antzinako hiri honetako piramiderik...
<b>kazola</b>	Letoizko <b>kazolak</b> eta zartaginak nonahi.
<b>lakio</b>	...baina ez zuen apenas ezer ikusi, puntu gorritxo bat akaso, sandaliaren <b>lakitxoaren</b> gainean.

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

**leihatila**Hobe **leihatilatik** begiratu eta beste ezertan ez pentsatzea.**txatxu**...krimen eszenara gerturatzeko saiatzen ari zena, bideo-kameratik zinta **txatxu** bat lapurtzeko asmotan.**tirabira**Oraingo honetan herrialdera, Ingalaterrara itzuli behar du, herentzia batek sortu dituen **tirabirak** konpontzera.**kateatu**Kausa-efektu guztiak **kateatu** guztiak gelditu egiten ziren, ez aurrera ez atzera.**ehorzketa**Hilobi bat zegoen irudikatuta, nahikoa zekien Amaiak ordurako hura maien **ehorzketa** bat zela konturatzeko.**malapartatu**1841eko urriaren 9an, gaixotasun **malapartatu** baten erruz...**kutun**Bada, estutu zezala bere aldizkari **kutuna**, baina utz zezala Amaia bakean!**mardul**...gizon **mardul** eta burusoila, azken urteetan Egipton lan egin ostean...**irudikatu**Hilobi bat zegoen **irudikatuta**, nahikoa zekien Amaiak ordurako hura maien ehorzketa bat zela konturatzeko.**muzin**Momentu hartan damutu egin zitzaion bidaian atera aurretik amak utzitako liburu bati egindako **muzina**.**zinabrio**—Gorria da gorpua baltsamatzeko erabili zuten mineralagatik: **zinabrioagatik**.**horditurik**...besoa luzatuta eta bere pistolari oraindik kea zeriola, **horditurik** ematen zuen bere tiroek lortutako emaitzarekin.**urpekari**...oxigeno-botila bat ikusi zuen Amaiak, **urpekariek** eta ospitaleetako gaixoek erabiltzen dituztenak bezalakoak.**lardaskatu**Tximinoak ere han jarraitzen zuen, eskuineko sorbaldaren gainean, intxaurrentzeko bat **lardaskatuz**.**samar**...arrantza egiten dute errekatxo barregarri **samar** batzuetan, eta begirada sarkorrak dedikatzen dizkigute.**ubeldura**...eta ezkerreko besoan utzi didan **ubeldurak** ez dauka, ez, oso itxura onik.**kamaina**...argi-zirkulua mugitzen jarraitu zuen: **kamainatxo** bat, eta oin batzuk gero.**trumoi**...**trumoi** eta tximistargiz jositako ekaitz paregabe batek ozeanoaren aho sakonerantz eramanez gintuen kasik.**fardel**...errespetu gutxirekin tratatzen zituzten kamera eta mikrofonoak, ezertarako balio ez zuten **fardelak** balira bezala.**telepatikoki****Telepatikoki** agur esan zien oihanari, Inskripzioen Tenpluari eta bertan gordetzen ziren sekretu guztiei...

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen: Nota: 

<b>sareta</b>	Gero, harraska ondoko entzimerara igo eta paretako <b>sareta</b> bat askatu zuen, azkar baino azkarrago.
<b>kilikagarri</b>	...baina, aldi berean, gure aurrean zabaltzen zen ozeano bortitzak hamaika abentura <b>kilikagarri</b> iragartzen zituen, gure bihotzak hanpatuz.
<b>harraska</b>	Gero, <b>harraska</b> ondoko entzimerara igo eta paretako sareta bat askatu zuen, azkar baino azkarrago.
<b>txirrika</b>	Oraindik gauza bat falta zen, ordea. <b>Txirrika</b> sistema bat zuhaitz lodi bati lotzea, bai jaitsiera bai geroko irteera posible egiteko.
<b>hanpatu</b>	Catherwoodi ezkerreko begia <b>hanpatu</b> zaio eta biziki larritu naiz...
<b>iskin egin</b>	Ama bere bileran kontzentratuta ikusi arte itxaron beharko zuen ordea, <b>iskin egin</b> aurretik.
<b>masakre</b>	...eta agintariren batek kolokan ikusten bazuen bere boterea, <b>masakreari</b> ekiten zion...
<b>leinu</b>	...hildakoaren <b>leinu</b> guztiaren berri emango lukeena.
<b>sentibera</b>	Catherwood beti izan da gizon <b>sentibera</b> , eta esaten badiot medikuek astebete baino gutxiagoko esperantza eman didatela...
<b>suegorri</b>	Hiru hildako, atxiloaldi bat, lagun bahituaren erreskatea, <b>suegorri</b> baten erasoaldia...
<b>birrindu</b>	Dena ametsa izan ote zen esperantza <b>birrindu</b> zitzaion.
<b>erro</b>	Bere pentsamenduetan murgildu zen, zuhaitzen <b>erro</b> lodiekin estropezu egitea saihesten zuen bitartean.
<b>kopetilun</b>	Banku berean eserita, kafe bana zuten esku artean eta, <b>kopetilun</b> , jantoki osoa kontrolatzen ari zirela ematen zuen.
<b>kaputxa</b>	Bere albora ailegatu zenean, burua estaltzen zion <b>kaputxa</b> kendu zion eta begi beldurtuekin egin zuen topo.
<b>litxarrerria</b>	...eta zaku handietatik ateratzen zituzten <b>litxarrerriak</b> ilara ordenatuetan kokatzen zituzten.
<b>ttipi</b>	Beheko suaren errautsetatik korrika egin eta Marioren sorbaldara igo zen, jauzi <b>ttipi</b> eta dotore batez.
<b>aldarte</b>	<b>Aldarte</b> onekoa da Catherwood gero!
<b>asaldatu</b>	Orduan aitonaren ahotsa entzun zen, eta lehenengo aldiz ez zen ahots lasaia baizik eta erabat <b>asaldatu</b> .
<b>zenote</b>	Maskararik gabe utzi nauzue, nire laguntzaileek <b>zenote</b> baten ondoan amaitu dute zuen erruz...
<b>edadetu</b>	...bestetik gizon <b>edadetu</b> eta elbarri bat eta bere laguntzailea behar zuena.